

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrari (HAPO) aldakuntza xehatuaren proiektua onetsi eta aldakuntzari hasierako onespena ematea, Elvira Zulueta jauregiaren kalifikazio xehatua aldatzeko

Hau erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuran

1. Gasteizko HAPOan aldakuntza xehatuaren proiektua onestea, Elvira Zulueta jauregiaren kalifikazio xehatua aldatzeko.

2. Gasteizko HAPOan aldakuntzari hasierako onespena ematea, Elvira Zulueta jauregiaren kalifikazio xehatua aldatzeko.

3. Dosierra jendaurrean jartzea, hogeit hamar egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

4. Kultura-ondarearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari erabaki hau komunikatzea, Euskal Kultur Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 25.2 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Dosierra Gasteizko Udalaren Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abuztuaren 2an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE